



2011KO IRAILAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako irailaren hamaseian, arratsaldeko ordubi terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Kepa Goenaga Alikostes zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendan ez baldin badago ere, tokiko gobernu batzordeak egiteko orduaren aldaketari buruz hitzegitea proposatu nahiko lukeela.

Bertaraturako guztiek ontzat ematen dute hortaz hitzegitea.

Alkateak esaten du tokiko gobernu batzarrak egiteko ordua arratsaldeko hiru terdietan izan beharrean arratsaldeko ordubi terdietan izatea proposatzen duela.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartu egiten du.

I.- AURREKO AKTA.-

Ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztzen da 2011ko irailaren 2an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 16 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMAR MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (10.297,49 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-003 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, astean bi egunetan eta eguneko 2 orduz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.



- 11-11-002 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea, bere borondatez.

Drogomenpekotasuna garraiorako laguntzak.-

- 11-14-001 zbk.dun esped.: Hilean 28€ko dirulaguntza ematea garraiorako.

Ifarra-hegoa lankidetzeta programa.-

2011 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, ondorengo dirulaguntzak onartzea erabakitzen du:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Padres Paules. Parroquia San Vicente de Paul	Bethania etxea, zentru geriatrikoa.	4.500,00 €
Karitas	N'Daliko (Benin) ospitale berria bukatzen.	6.580,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Gihara (Rwanda) eskolako sukalde-jangela eraikuntzaren kontentzio horma eta urak biltzeko zisternen eraikuntza egitasmoa.	15.800,00 €
Monja Zistertarrak	San Ambrosio ikastetxea Guanacasten.	6.580,00 €
Real Medicine Foundation Peru	San Clementen (Pisco probintzia) Policlinico Peruano Americano.	5.354,00 €
Herrian elkarlanean	Beninen putzu bat eta ur gaztelu bat eraikitzea.	10.116,00 €
Asociación Paz Ahora	Bakearengatik oporrak	3.000,00 €

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Gerriko Ikerlan Beka.-

2011 urteari dagokion Gerriko Ikerlan Bekaren lehen zatia ordaintzeari buruz Kultura batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Gerriko Ikerlan bekarako bi mila eta bostehun (2.500 €) ordaintzea onartzen da.

Mintzalaguna proiektua.-

Mintzalaguna proiektuari 2011ko urtarriletik ekaina bitarteko epeari dagokion dirulaguntza emateko euskara eta hezkuntza batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, bost mila (5.000 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.



V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hiru terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line and a vertical line.

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'A. M. S.'.

